

Inbertsio-politika (laburpena)

Funtsaren %100 errenta finko publikoan edo pribatuan egongo da, eta OCDEko merkatu eta jaukitzaileetan inbertituko da; kreditu-kalitate handikoak izango dira edo Espainiako Erresumaren berdinekoak, azken hori txikiagoa bada. Esposizio osoaren %25 inbertitu ahal izango du, gehienez, erdi mailako kreditu-kalitateko aktiboetan (BBB- arte), edo Espainiako Erresumarena baino hiru maila txikiagoa dutenetan (azken hori A- baino txikiagoa balitz). Ondarearen %10 inbertitzen du gehienez IKE finantzarioetan eta dibisa-arriskuan. Batez besteko iraupena 6 hilabetetik beherakoa.

*Inbertsio-politikaren azalpen xeheagoa funtsaren IFD dokumentuan ikus daiteke.
****FUNTS HONEK %25 INBERTI DEZAKE ERRENTA FINKOKO KREDITU-KALITATE TXIKIKO JAULKIPENETAN, HAU DA, KREDITU-ARRISKU HANDIKOETAN.**

Ezaugarri Orokorrak

Ondarea:	12.626.808,82
Komisioak guztira:	%0,25
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenbolto Komisioa:	%0,00
Fondo mota:	EURO ERRENTA FINKOIA EPE LABURRERA
Arrisku-profila:	1 1-etik 7- rako eskalan
Inbertsiorako gutxieneko epea:	Astebete

2021/03/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	Urte 1	3 urte	5 urte
-%0,05	-%0,17	-%0,17	-%0,05	-%0,41	-%0,36

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2021	2020	2019	2018	2017	2016
-%0,17	-%0,46	-%0,19	-%0,52	-%0,37	-%0,10

*Iraganeko errentagarritasunak ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.


2021/03/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%0,19
Lurrunkortasun 3 urte**	%0,21

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzinatea edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

Errenta finkoko zorroaren egoera


Iraupena	0,42
%Kreditu erakusketa	%38,80
Batez besteko rating-a	BBB+



Hileko iruzkina


Pandemia adierazi zeneko urtemugaren hilabeteetan, ikuspegi ekonomikoak haren bilaerari jarraitzen du lotuta. Datuak onak dira txertatze karreraren buruan doazen herrialdeetan, AEB esaterako, non presidenteak biztanleen % 90k datorren hilabeteetan txertoaren dosi bat jarrita izango dutela adierazi duen. Txertatze erritmo bizia eta dagoeneko onartu diren 1,9 bilioiko zerga pizgarriak eta ia 3 bilioi dolarreko azpiegituren makroplanak elkartuta, Amerikako ekonomiaren hobekuntza ekar dezakete. Bien bitartean, Europan, aurrerakuntza ez da espero zena bezain azkarra enpresa farmazeutikoekin izaten ari diren atzerapenen eta gatazken ondorioz. Horrez gain, Kontinente Zaharra kutsatzen olatu berri bat ari da bizitzen eta ekonomiak berriz ere areagotu dituztelako murrizketak. Horrek zalantza handiak sortu ditu 2021eko hobekuntzaren bizkortasunean eta sendotasunean. Izan ere, itxaropenak hirugarren hiru hilekoan daude jarrita, non txerto osoa jarri dizkioten biztanleen portzentajeak bizkorrago gora egitea espero den, dosi bakarreko formatuan emango den Jansen txertoari esker. Aurreikuspen ekonomikoek urteko bigarren hiru hilekoa zehazten dute txertatze masiboa ordurako espero baita. Hobekuntza desberdindu honen inguruan, banku zentralak merkatuak lasaitzera irten behar izan dira berriz ere, finantzazio-kostuak baxu edukitzeko ahal duen gutzia egingo duela esanaz, sortzen ari diren kezken aurrean, are gehiago AEBan inflazio aurreikuspenak igo direlako eta zerga laguntzekin likidezia kantitate handiak injektatzearren ondorioz. Finantza-merkatuetan, irabaziak egon dira munduko burtsa nagusietan, nahiz eta inbertitzaileen sentimenduak gora-behera nabarmenak izan dituen. Ingurune honetan, Eurostoxx indizeak % 7tik gorako igoera izan du. S&P indizeak, aldez, kota maximo berriak izan ditu, % 4,2eko igoerarekin, eta Dow Jones indizeak % 6,6koarekin. Ibexak % 4tik gorako igoera izan du, hainbat mugimendu korporatiboren barruan. Inbertitzaileek sektore ziklikoagoak nahiago izan dituzte, nahiz eta teknologiak, Amerikakoak ere zehatzago, nolabaiteko higadura izan duen eta portaera okerragoa izan duen. Munduaren gainerako herrialdeetan, japoniar burtsak positiboan bukatu du eta emergenteek, oro har, % 2 inguruko eroria izan dute, dolarraren sendotasunaren igoerak kaltetuta. FEDak zorraren gorakadei eusteko esfortzuak egin baditu ere, Amerikako 10 urterako bonuaren errentagarritasuna % 1,74ra arte igo da, aurreko hilaren % 1,40az geroztik. Europa, oraingoan, Amerikako eta Alemaniako gorakadetatik kanpo geratu da, eta haren errentagarritasuna -% 0,29 arte jaitsi da. Zor periferikoak BCEaren asteko erosketen intentsitatearen gorakadari onura ateratu dio, eta Espainiako bonuak, ondorioz, oinarritzko 9 puntu galdu ditu. Kreditua, bestetik, nahiko egonkor mantendu da. Azkenik, petrolioak lehenengo erorikoa izan du urritik, Europako mugikortasun murrizketak igo direla eta.

Rating-aren araberako banaketa




Errenta finko zorroaren Rating-aren araberako banaketa.

Iraupenaren araberako banaketa



Errenta finko kontado-zorroaren barne dagoen durazioaren banakuntza interes tasaren kurbaren arabera.

Sektore nagusiak



Sektoreen araberako ondarearen banaketak ez du likidezia barneratzen.

Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza pertsonalizatua, ez eskaintza, eta ezta eskaera ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharreko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren garabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, funtsaren eskuratze-balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioegileak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtsaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, entitate komertzializatzaileen webgunean eta CNM/ren erregistroetan kontsulta daitezke.